


¿zer da HIESA ?



n 7 i y e b

08.04.10
A/34118

g e h i t u



¿ qué es el SIDA ?

Zer da zehatz-mehatz HIESa?

Hiesa, edo Hartutako Imuno Eskasiaren Sindromea, GIB Giza Imuno Eskasiaren Birusak sortutako gaixotasuna da. Organismoaren defentsa sistema poliki-poliki hondatu eta suntsitzen du. Hori dela eta, pertsonak ezin die aurre egin une jakin batean ager daitezkeen infekzioei.

Eramailea : Birusa organismoaren barruan sartzen denean, bolada batez pertsonak ez dauka infekzioaren ageriko sintomarik, hura kutsatzeko gai izan arren.

Gaixoa: Sistema immunologikoaren aurkako borrokan birusak oreka bere alde hausten duenean, hainbat sintoma ager daitezke. Orduan, GIB birusak sortutako infekzioaren unerik larriena hori izango litza-teke kutsatuarentzat.

Baina oraindik ere arazoa al da?

Hiesak, lehenbiziko kasuak agertu zirenetik hogeitaz urteren ostean, arazo larria izaten jarraitzen du. Gaur egun, birusa odolean ugaltzen eragozteko, garaturiko munduak sendagai eraginkorrak dauzka. Horri esker, gaixoen bizi kalitatea hobea da eta bizirau-pena ere luzeagoa da.

Hiesa prebenitu eta sendatzeko txertoak ikertzen segitzen dute; hala ere, XXI. mendeko lehen hamarkada arte ez dute uste behin-betiko emaitzarik lortuko dutenik.

Eta nola kutsatzen da?

Hiesaren Birusa kutsatzea ez da erraza, ez baitirau bizirik organismotik kanpo. Organismoaren barruan gorputzeko jariakin guztietan badago ere, kopuruz soil-soilik izan daiteke kutsakorra odolaren, espermaren, bajinako jariakinen eta ama esnearen bitartez.

Beraz, kutsatzeko bideak honako hauek dira:

Kutsaturiko odolarekin erlazio zuzena izatea, objektu zorrotzen bitartez: xiringak, bizarra kentzeko makinak, hortz eskuilak, ...

Kutsaturiko amarengandik bere seme-alabei: haurdunaldian, erdi izatean edota bularra ematean gerta daiteke kutsadura.

Babesik gabeko sexu harremanak:

- uzkiko eta baginako koitoa preserbatiborik gabe egitea.
- esperma, baginako jariakinak eta odola ahoratu edo irenstea.
- sexu jostailuak trukatzeko (esaterako, kontsolagailuak)
- harreman sadomasokistak, norberaren odolak eta beste pertsona baten odolak elkar ukitzen dutenean.

Niri ere gerta al dakidake?

Birus honek ez du adinaz, gizarte mailaz, generoz edota sexu orientazioz tutik ere ulertzen. Egiten duzunagatik kutsatzen da, eta ez zarenagatik. Gaur egun guk daukagun txerto bakarra **PREBENTZIOA** da; beraz, kutsaturiko pertsonaren odola, esperma edota bajinako jariakinak zuzenean ukitzea saihestu behar dugu. Hori lortzeko, horra hainbat aholku :

* Objektu zorrotzik ez erdibanatzea: xiringak, orratzak, bizarra kentzeko makinak, hortz-suilak edota orraziak.

* Koitorik gabeko sexu harremanak izatea; edota bestela, uzki-ko eta bajinako harremanetan, eta baita felazioan ere (ahoa eiakulatuz gero), preserbatiboak behar bezala erabiltzea. Cunnilingus-aren eta musu beltzaren kasuan, latexezko trabak erabil daitezke, hala nola erditik ebakitako preserbatibo bat edota janariak biltzeko plastikoa ere.

* Haurdun dauden emakumeen kasuan, garrantzitsua da kontrol ginekologikoa egoki eramatea eta egungo sendagaiak hartzeko aukera kontuan izatea, kutsadura bertikala eragozteko.

Eta kutsaturik egon naitekeela uste badut?

GIB birusak kutsaturik zauden ala ez jakiteko modu bakarra, Hiesaren proba edo testa egitea da. Proba hau funtsean odol azterketa espezifiko bat egitean datza, Hiesaren Birusaren aurkako antigorputzak ba ote dauden atzemateko. Antigorputz hauek garatzeko hiru hilabete igaro behar dira, eta beraz, analitikak ere epe horixe behar du. Hori dela eta, probaren emaitza fidagarria izango bada, "leiho denboraldi" hori itxaron beharra dago arrisku jarduketa baten ostean.

Probaren emaitza positiboa bada, pertsona horrek birusa dauka eta kutsatu egin dezake.

Emaitza negatiboa bada, pertsona ez dago kutsaturik, baina horrek ez du pertsona etorkizunerako ere immunizatzen, arrisku praktikak izaten jarraitzen badu.

Hiesaren Proba egiteko, zure eskualdeko Hiesa Prebenitu eta Kontrolatzeko Zerbitzura jo dezakezu (anonimoa eta doanekoa da); edo bestela, oheburuko medikuari edota laborategi pribatu bati eska diezaiekezu proba egitea.

Eta orduan ...

Sexu harremanak koitoaz harantzago doazela kontuan izatea garrantzitsua da; halaber, irudimena baliabide eraginkorra da Hiesaren kutsadura prebenitzeko.

Koitoa dakarten sexu harremanak izatea aukeratuz gero, ongi erabilitako preserbatiboa metodorik onena da Hiesaren birusaren infekzioa eta sexu bidez kutsatzen diren beste gaixotasun batzuk saihesteko.

Pertsonek orok euren burua aske sentitu behar dute sexu harremanak noiz, norekin eta nola izan erabakitzeko orduan, hala nola arrisku praktiken aurrean EZ esateko orduan ere.

¿Qué es exactamente eso del SIDA?

El Sida, o Síndrome de Inmunodeficiencia Adquirida, es una enfermedad causada por el Virus de Inmunodeficiencia Humana (VIH), que actúa alterando y destruyendo lentamente el sistema de defensas del organismo, de forma que la persona afectada no pueda luchar contra las infecciones que pudieran aparecer.

Portador/a: Una vez que el virus se introduce en el organismo, comienza un período en el que la persona no tiene ningún síntoma visible de la infección, aunque sí puede transmitirla.

Enfermo/a: Cuando el virus rompe a su favor el equilibrio en la lucha contra el sistema inmunológico, pueden aparecer una serie de síntomas que situarían al afectado/a en el estado más crítico de la infección por VIH.

¿Pero todavía es un problema?

El Sida, veinte años después de aparecer los primeros casos, sigue suponiendo un problema grave. En la actualidad el mundo desarrollado dispone de medicaciones eficaces para frenar la reproducción del virus en la sangre, lo que repercute en una mejor calidad de vida de los enfermos y en una supervivencia más larga.

Las vacunas preventiva y curativa se siguen investigando, pero no se prevén resultados definitivos hasta pasada la primera década del siglo XXI.

¿Y cómo se transmite?

El Virus del Sida no se transmite fácilmente, ya que no sobrevive fuera del organismo. En el interior del mismo se encuentra en todos los fluidos corporales, pero sólo en cantidad suficiente como para producir una transmisión en la sangre, el semen, las secreciones vaginales y la leche materna.

Por tanto, las vías de transmisión son las siguientes:

El contacto directo con sangre contaminada a través del intercambio de objetos punzantes: jeringuillas, maquinillas de afeitar, cepillos de dientes, ...

De una madre infectada a su hijo/a: la transmisión puede producirse durante el embarazo, el parto o la lactancia.

Las relaciones sexuales sin protección:

- penetración anal o vaginal sin preservativo
- tragar o retener en la boca semen, fluidos vaginales o sangre.
- intercambio de juguetes sexuales (por ejemplo, consoladores)
- las relaciones sadomasoquistas cuando impliquen el contacto de sangre propia con sangre de otra persona.

¿Me puede pasar a mí?

Este virus no entiende de edad, clase social, género u orientación sexual. Se transmite por lo que haces, no por lo que eres. La **única vacuna** de la que disponemos en la actualidad es la **PREVENCIÓN**, por tanto, hay que evitar el contacto directo con la sangre, el semen o los fluidos vaginales de una persona infectada. Esto se puede conseguir:

- * No compartiendo objetos punzantes: jeringuillas, agujas, maquinillas de afeitar, cepillos de dientes o peines.

- * Realizando prácticas sexuales sin penetración o bien, utilizando de forma correcta el preservativo en las relaciones sexuales con penetración anal o vaginal, y también en la felación, si ésta conlleva eyaculación en la boca. Para el cunnilingus y el beso negro se pueden utilizar las barreras de látex, un preservativo cortado por la mitad o el plástico de envolver alimentos.

- * En el caso de ser seropositiva y estar embarazada, es importante llevar un control ginecológico adecuado y contemplar la posibilidad de tomar la medicación existente a fin de evitar la transmisión vertical.

¿Y si creo que puedo estar infectado/a?

La prueba o test del Sida es la única forma de saber si se está infectado/a o no por el VIH. Esta prueba consiste en un análisis de sangre específico que detecta si existen o no en el organismo anticuerpos contra el Virus del Sida. Estos anticuerpos tardan alrededor de tres meses en desarrollarse y, por tanto, en ser poderse detectar en una analítica. Por ello, para que el resultado de la prueba sea fiable, es necesario esperar ese "período ventana" después de haberse tenido una práctica de riesgo.

Si el resultado de la prueba es positivo, significa que la persona tiene el virus y puede transmitirlo.

Si el resultado es negativo, significa que la persona no está infectada, pero no le inmuniza para estarlo en un futuro si continúa manteniendo prácticas de riesgo.

Para realizarte la Prueba del Sida puedes acudir al Plan de Prevención y Control del Sida de tu provincia, donde es anónima y gratuita, o bien solicitarla a tu médico de cabecera o en un laboratorio privado.

Y entonces ...

Es importante tener en cuenta que las relaciones sexuales abarcan más allá de la penetración, y que la imaginación es también un arma eficaz para prevenir la transmisión del Sida.

Si se opta por mantener relaciones sexuales penetrativas, el preservativo bien utilizado es el método más eficaz para prevenir la infección por el virus del Sida y otras enfermedades de transmisión sexual.

Toda persona ha de sentirse libre de elegir el momento, la pareja y la forma en que quiere mantener relaciones sexuales, y a decir NO a las prácticas sexuales arriesgadas.

Asociación de Gays y Lesbianas del País Vasco

Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkartea

Arrasate, 51- 3º dcha.
Donostia-San Sebastián 20.005

T : 943 468 516
E-mail: info@gehitu.net

Infasis,
servicio de información y asistencia para gays y lesbianas
gay, lesbiana eta transexualentzako Informazio eta laguntza zerbitzua
T : 902 200 096
E-mail: infasis@gehitu.net



www.gehitu.net